

Merkatuan Enpresen Arteko Lehia Babesteko Legediaren aplikazio deszentralizatuan, zer?

(The decentralised application of the Anti-Trust Law)

ALZELAI ULIONDO, Igone

Merkataritza Zuzenbideko irakaslea
Euskal Herriko Unibertsitatea
Manuel Lardizabal, 4
20018 Donostia
dmpaluli@sd.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 97-98]

E

usko Jaurlaritzak eta Kataluniako Generalitatak Lehia Babesteko Legearen aurkako errekurtsuak tarteratu zituzten 1989an Auzitegi Konstituzionalaren aurrean. Autonomia erkidegoen eskuduntzak urratzen zituztela-eta, Legeko zenbait artikulua indargabetzeko erabakia hartu du Auzitegiak.

E

l Gobierno Vasco y la Generalitat de Cataluña presentaron en 1989 un recurso de inconstitucionalidad ante el Tribunal Constitucional con respecto a determinados artículos de la Ley de Defensa de la Competencia, alegando que atentaban contra las competencias autonómicas. La sentencia les ha dado la razón.

Z

e Gouvernement Basque et la Generalitat de Cataluña présentèrent en 1989 un recours d'inconstitutionnalité devant le Tribunal Constitutionnel concernant des articles précis de la Loi de Défense de la Concurrence alléguant qu'ils attaquaient contre les compétences autonomes. La sentence leur a donné raison.



Hau aspaldiko kontua da. Lehia Babesteko 16/1989 Legea ("Ley de Defensa de la Competencia") eman berri zenean, 1989.10.17an Eusko Jaurlaritzak eta 1989.10.18an Catalunya *Generalitat*-ak konstituziokontarakotasuneko errekurtsio bana jarri zuten, zenbait artikuluk eta lehenengo xedapen iragankorrak eskumen-banaketako sistema urratzen zutelako, euren eremua erasotuz. Auzitegi Konstituzionalak errekurtsio bien izapidetza onartu eta bateratu egin zuen.

Gauza da aipaturiko Legeak bi organoren esku utzi zuela bere aplikazioa: *Tribunal de Defensa de la Competencia* eta *Servicio de Defensa de la Competencia*. Hauek organo administratiboak dira eta bakarrak Estatuaren lurralde osorako. Baina, auzijartzaileen iritziz, antolaketa hau ez dator bat Konstituzioko 149.1 artikuluan eta beren Autonomia Estatutuaren ezarritako eskumen-banaketarekin.

Batetik, Konstituzioko 149.1 artikuluan, Estatuaren eskumen eskusiboaren artean, ez da lehia babestearen inongo aipamenik egiten. Bestetik, bi Autonomia Erkidegoetako Estatutuek barne-merkataritzarako eskumena aitortzen diete, nahiz eta mugapen batzuk ezarri eta, horien artean, lehiaren babeserako *legedia* aipatu. Beraz, gai hau arautzea ez dagokie beraiei, baina bai Jaurlaritzak, bai eta *Generalitatea* ere, legedi horren *aplikazioa* beren esku izatea aldarrikatzen dute. Jaurlaritzak, zehazki, lau eremuren eskumena eskatzen zuten bere errekurtsioan: enpresek merkatuan egin ohi dituzten estrategiak kontrolatzea; bere kasuan, zenbait eragiketa baimentzeko ahalmena; organo propioak izatea eta, azkenik, prozedura ere berak finkatzea.

Auzian, Estatu abokatuak eta, bere garaian, lege-proiektuaren egile izan zen Partidu Sozialistak antzerako arrazoiak eman zituzten halako aldarrikapenak geldiarazteko: Estatu osoko batasun ekonomikoa, alegia, eta bertan merkatua bakarra dela. Baina, gai honetan, auzijartzaileek nahiz Auzitegi Konstituzionalak Europar Batasunaren kasua ekarri dute gogora. Bertan, Europa mailako merkatu bat eraiki izan da, lehiaren arauketa eta aplikazioa Europar Batasuneko autoritateei egokituz. Hala ere, partaide diren Estatuak, beren barne eremuetan, dagozkien legedi, organo eta prozedurak ezar ditzakete, beti ere Europako araudirik urratu gabe.

Ondorioz, Auzitegi Konstituzionalak Lehiaren Babeserako Legeko zenbait artikuluko partzialki Konstituzioaren kontratatzat deklaratu zituen, autonomia-erkidegoen eskumenak erasotzen zituzten heinean. Erabakiaren oinarri nagusia errekurtsio-jartzaileen Autonomia Estatutuaren dago, Lehia Babesteko Legedi estatutaren betearaztea erkidegoen esku uzten dutela ulertu behar baita. Dena den, artikuluko-zati

“ Auzitegi Konstituzionalak Lehiaren Babeserako Legeko zenbait artikuluko partzialki Konstituzioaren kontratatzat deklaratu zituen, autonomia erkidegoen eskumenak erasotzen zituzten heinean ”

horien baliogabetzea geroratu egin zuen, Estatu lege bidez, autonomia-erkidegoen exekuzio-eskumenak koordinatzeko irizpideak finkatu bitartean.

Epai hau 1999.11.11n eman zen eta 1999.12.16ko BOEan publikatu. Bestalde, garai hartan, auziaren eztabaidagai izan zen Legearen berrikuntza-prozesua burutzen ari zen eta amaitzear zegoen. Aurrekoa birmoldatzen zuen 52/1999 Lege berria, abenduaren 28an eman zen (BOE 300, 1999.12.29). Baina bertan ez zen exekuzioaren eskumen-banaketaren inguruko araurik zehaztu, nahiz eta tramite parlamentariotan, Kongresuko eztabaidan, Convergència i Unió alderdiak auziko problematika eta aldarrikapenak gogorarazi. Baina, hala eta guztiz ere, gaiaren inguruko arauketa ordurarte zegoen moduan utzi zen, agian, Auzitegi Konstituzionaleko epaiaren preskizian.

Gero, epaia eman zenean, bere edukia bete behar izatea ezinbestekoa zenez, Legeari bigarren azken xedapen bat erantsiaz bideratu zen gauza. Bertan adierazten da, 2000.10.1a baino lehen, Gobernuak Diputatuen Kongresuan dagoen lege-proiektua aurkeztuko duela, Estatu eta autonomia-erkidegoen arteko eskumenen banaketarako irizpideak arautuz.